

## IRABAZI-ITURRIAK

Gure enpresaren irabazi-iturri nagusiak **salmentak** izango dira. Honela, bai gure lokalean saltzen ditugun elikagai eta edariak, bai eta kanpoan jan eta edatekoak izango dira gure salgai nagusiak.

Horretaz gain, gazte txartelarekin deskontuak egiten ditugunez, Eusko Jaurlaritzako Gazte Arloak **diru-laguntzak** emango dizkigu, erreztasun hori bezeroei eskaintzeagatik. Bestalde, bertako produktuak eta merkataritza sustatzeagatik Gasteizko udaletxeko hainbat sailetatik **sarrerak jasoko** ditugu, baita ingurumenarekin konpromezua izateagatik ere.

Azkenik, gure sare sozialen bitartez, gure hornitzaileen **publizitatea** egingo dugu, hala nola, *Euskalvaso* enpresakoa beste batzuen artean.

